

110. artikulua. Salaketa publikoa.

1. Salaketa publikoa erabiliko da zerga urraketak izan daitezkeen edo tributuen aplikazioan ondorioak eduki ditzaketen gertakari eta egoerak Zerga Administrazioari jakinarazteko. Salaketa publikoak ez du zer ikusirik foru arau honen 90. eta 91. artikuluetan Zerga Administrazioari laguntzeko arautzen den obligazioarekin.

2. Salaketa bat jaso ondoren, organo eskudunari helaraziko zaio bidezko jarduketak egin ditzan. Salaketak funsgabeak direla uste denean edo salatutako gertakariak edo pertsonak behar bezala zehaztu edo identifikatzen ez direnean, organo horrek salaketa artxibatzea erabaki dezake.

Egotzitako gertakariak egiazkoak direla pentsatzeko nahiko zantzurik dagoenean eta gertakari horiek Zerga Administrazioarentzat ezezagunak direnean bidezko jarduketak hasi ahal izango dira. Horrelakoetan, salaketa ez da administrazio espedientearen parte izango.

3. Salatzailea ez da interesatutzat hartuko salaketaren ondorioz hasten diren jarduketa administratiboetan, eta haien emaitzari buruz ez zaio informatuko. Era berean, ez da legitimatuta egongo jarduketa horien emaitzen aurka errekurso edo erreklamaziorik jartzeko.